

landarea

‘Radermachera sinica’, hostaila ederreko landarea

Txinan du jatorria *Radermacherak*. Naturan zuhaitz txikia da eta lore horiak ditu. Etxe barnean, ordea, ez du lorerik; hori bai, gaztetako hostaila ederra du. Argitasuna maite du, baina ez eguzki galdatan egotea. Etxe barruko ohiko tenperaturak onak dira landarearendako, baina kontuz haize korronte eta bat-bateko tenperatura aldaketekin.



ELHUYAR

Jakoba Errekondo (Elhuyar)

argitalpena

Arabako mahats-biltzea urriko GEU aldizkarian

Gasteizko Euskaldunen elkarteak karrikaritzen duen GEU aldizkariaren urriko zenbakian, Arabako mahatsak ardo bilakatzeko egiten diren urratsak aztertu dituzte erreportaia batean. Mahats-biltzearen hainbat alderdi ukitu dituzte: mahastien eta ardandegien estetika, aldi baterako langileen egoera, esportazioen nondik norakoak, eta beste.



Argitaratzailea: **GEU** elkarte.

musika

ARRIGORRIAGA. Alboka. Gaur, 21:00etan, Lonbo aretoan.
ATARRABIA. Na Tua Man eta Anabasan. Bihar, 20:00etan, Etxe eltzak elkartean.
BAIONA. Julien Brunetaud Quartet. Bihar, 21:30etan, La Luna Negra aretoan.
BERGARA. Execradores eta Extorsion. Gaur, 21:00etan, gaztetxean.
BILBO. Urtz. Gaur, 19:30etan, EHUko Sarriko, Ekonomia fakultatean.
‘Romeo y Julieta’. Gaur, 20:00etan, Silveria orkestra filarmonikoaren eskutik.
Alaitz eta Maider. Bihar, 20:00etan, Bilborock aretoan.
Lagun artean kantari. Bihar, 20:00etan, Kafe Antzokian.
The Movies eta The Tea Servants. Bihar, 22:00etan, Azkena aretoan.
BURLATA. Mr Fylyn. Gaur, 21:00etan, Black Rose tabernan.
DONOSTIA. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Gaur, 20:00etan, Kursaal aretoan.
Meisho Tosha. Bihar, 20:00etan, Kursaal.
ERRETERIA. ‘Nerea Erauskin eta Imanol Elizasu’. Gaur, 20:00etan, Erreteria Hiria kulturunean.
IRUÑEA. ‘Euskadiko Orkestra Sinfonikoa’. Bihar, 20:00etan, Gayarre antzokian.

antzerkia

BAIONA. ‘Des Barbes bleues’. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Baiona antzokian. J. M. Cano Lopezen eskutik.
BARAKALDO. ‘Printze txikia’. Gaur, 20:00etan, Barakaldo antzokian. Laba taldeak eskainia.
BILBO. ‘El garaje de los pulpos’. Gaur, 20:30etan, Mystyc kafe-antzokian.
‘Sit’. Asteazkenean, 20:00etan, Arriaga antzokian. Tricycle taldearen eskutik.
‘Nius’. Asteazkenean, 20:00etan, Ayala antzokian. Basur taldeak eskainia.
ELIZONDO. ‘Txirrikiz’. Bihar, 18:00etan, pilotalekuan. Kukubiltxo taldearen eskutik. Haurrendako.
GASTEIZ. ‘Macbeth’. Bihar,

musika

Urtz. Gaur, Bilboko EHU - Sarrikoko Ekonomia fakultatean (19:30etan).



EGUNKARIA

Urtz taldeak bere bosgarren diskoa kaleratu zuen iaz, pop estilotik hurbilen dagoena.

Euskal Herriko Unibertsitatean joko du gaur Urtz laukoteak, Sarrikoko fakultatean

Xabier Camarero, Javi Estella, Ritxi Barrenetxea eta Josu Ariztegi, hau da, Urtz musika taldea EHU - Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien fakultatean ariko da gaur, 19:30etan hasita. Urtz taldeak ‘Aingeru’ izeneko lana kaleratu zuen iaz, bere karrera luzeko bosgarren diskoa.

20:30etan, Printzipal antzokian.
IRUN. Ipuin kontaketa. Bihar, 17:30etan, udal liburutegian. Oihulari Klown taldearen eskutik. Haurrendako.
LASARTE. ‘Pan con pan’. Bihar, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean. Trapu Zaharra ttaldeak eskainia.
LEIOA. ‘Amores imposibles’. Bihar, 12:00etan, EHU. Nas Teatreren eskutik.
URRETXU. ‘Biblia osoa gutxi

gora behera’. Gaur, 22:00etan, Zelai-Arizti aretoan.

hitzaldiak

ARRAGUA. ‘Palestinak bizi duen egoera’. Gaur, 20:00etan, Goiko Eskoletan. Komite Internazionalistak taldearen eskutik.
BILBO. ‘Sexo sano, sexo joven’. Gaur, 19:00etan, Otxarkoaga zentroan. Eva Iglesiasek eskainia.
‘25 urte eta gero, hilzorian al

dago euskara?’. Gaur, 19:30etan, La Bolsa auzo-etxean. SEI elkarteok Euskal Herriko egoera laburbilduko dute, eta Txomin Peillenek Ipar Euskal Herriko egoeraz ariko da. IPES elkarteak antolatua, Kike Amonarrizek gidatua.
‘La vigencia del pensamiento del Che, visto desde la lucha de Euskal Herria’. Gaur, 19:30etan, La Bolsa auzo-etxean. Iñaki Gil de San Vicenteren eskutik. Resumen Latinoamericano elkarteak

antolatua.
‘La historia del arte, la ciencia de la optica’. Bihar, 19:30etan, Guggenheim museoan. Charles Falcoren eta David Hockneyren eskutik.
‘Euskaraz dibertitzeko manerak’. Ostegunean, 22:00etan, Kafe Antzokian. Kike Amunarrizen, Antton Olariagaren eta Asisko Urmenetaren eskutik.
DONOSTIA. ‘Canons 22 para paseo marítimo de Zarautz’.

Bihar, 19:30etan, Larrotxene kultur etxean.

GASTEIZ. ‘Giza eskubideak hirian’. Gaur, Judimendi gizarte etxean. Javier Otaola sindikoaren eskutik.

‘Idazlea kazetari bihurtzen denean’. Bihar, 20:00etan, Hikaatenean. Hasier Etxeberria *Bost idazle berbetan* bere azken liburuz.. Gasteizko Irakurle Klubak antolatua.

IRUÑEA. ‘Hijos de las estrellas’. Gaur, 19:00etan, planetarioan. Daniel Altschule Puerto Ricoko behatokiaren zuzendariaren eskutik.

‘Palestinatik ekarritako testimonioa’. Mintzaldia eta diapositiba emanaldia Nabulusetik etorri berriak diren Maite Urizen eta Bea Aranaren eskutik. Gaur, 20:30etan, Aitzina tabernan.

Jokin Balentzia ‘Egunkari ezkutua’ bere liburuz. Bihar, 20:00etan, Zaldiko Maldiko elkarte. Agustín Zamorak aurkeztua.

‘Iran, el camino de la reforma’. Ostegunean, 19:30etan, Zapateria 40 aretoan. Jesus Merinerok eskainia.
LEGAZPI. ‘Elikadura orekatua’. Bihar, 18:00etan, kultur etxean. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako gurasoei zuzendua. Ana Elbustok eskainia.

TOLOSA. ‘Adierazpen eskubidea’. Gaur, 20:00etan, udaletxeko pleno aretoan. Lolo Ricoren eta Enric Marinen eskutik. Udalbiltzak antolatua.

dantza

BILBO. ‘Image’. Bihar, 21:30etan, Guggenheim museoan. Dantza garaikidea.

ikus-entzuneakoak

ARRAGUA. ‘Itimages: aventura por el Amazonas’. Bihar, 20:00etan, Goi Eskoletan.
ASTIGARRAGA. ‘De Pekin a Donostia en bicicleta’. Gaur, 19:00etan, kultur etxean. Carlos Mañeroren diapositiba emanaldia.
BASAURI. ‘Darkness’. Gaur, 17:30etan, 20:00etan eta 22:30etan, Social antzokian.
BEASAIN. ‘La habitación del hijo’. Ostegunean, 21:00etan, Usurbe antzokian.